

## Udala aztertzen ari da Antziola-Latsunbe arteko enlazea pasealeku uztea, trafikorik gabe

■ Obra ia bukatuta dago eta Rekondok Kronikari adierazi dionez, Udala zenbait proiektu aztertzen ari da biala nola bukatu erabakitzerako.

ANTZIOLA eta Latsunbe artean kotxe eta oinezkoentzako bidea egiten ari dira eta korporazio berria proiektu hori aldatzeko aukera aztertzen ari da. Aurreko Gobernu Taldeak onartutako proiektuaren arabera enlazeak trafikoarentzat bi karril izango lituzke, eta alde banatan espaloï zabala. Enlazeako obrak oso aurreratuta daude eta hilabete honen azken alderako bukatzeko moduan dira. Korporazio berria, ordea, proiektuaren bukaera aldatzeko aukera aztertzen ari da.

### Proiektuak mahai gainean

Joxan Rekondok Kronikari adierazi dionez, Udalak momentu honetan aztertzen ari da zenbait aukera eta horien bideragarritasuna zati hori pasealeku bezala gelditzeko, trafikorik gabe. Korporazio berriak dagoeneko pauso bat eman du eta oraingoz bidea asfaltatu geldituko da, zer egin erabaki arte. Ezereen okerrik ez dela, uztaila bukaera alderako espaloïak, argiak, bankuak, bide bazterreko arbustuak eta abar dena bukatuta egongo da, baina, bi karrileko bidea izan behar zuena bere horretan geldituko da oraingoz.



Antziola-Latsunbe enlazeako obrak oso aurreratuta daude eta hilabete honen azkeneko bukatuta egon litezke.

### BIDEA ASFALTATU GABE

Antziola-Latsunbe enlazeako obrak hilabete honen azken aldera dituzte bukatzekoak. Espaloïak, argiak, aulkia, arbustuak... dena bukatuta geldituko da, baina, bidea asfaltatu gabe utziko dute oraingoz, zer egin erabaki arte.

### Polemika sortutako proiektua

Antziola eta Latsunbe arteko proiektuak herrian tira-bira sortu duen proiektua izan da. Aurreko Gobernuak planteatzen zuenaren arabera, proiektuaren helburua zen asfaltatutako bidea urbanizatzea eta horrekin batera herri-barruko bide-sarea osatzea. Oposizi-

oak, ordea, ez zuen proiektu hori begi onez ikusten. Bere ustez, enlaze hori ez zen beharrezkoa eta hondatu egingo zuen balio haundiko ingurua. EA-EAJk herrian eztabaida zabaltzea proposatu zuen.

Tranbide taldeak berriz, 1.300 firma bildu zituen proiektua gelditzearen alde. □

## Joxan Rekondok gaur izendatuko du Gobernu ekipo berria

■ Pleno berezia egingo da gaur eguerdian Gobernu berria izendatu eta beste zenbait kargu erabakitzeko.

GAUR 13:30etan egingo da Udal gobernu berria izendatuko duen Pleno berezia. Gobernu berria EA-EAJ eta EB-ko kideek osatuko dute, elkarren artean

lortu duten akordioa tarteko. Gobernu berria izendatzeaz gain, alkateordeak, patronatuetoako lehendakariak eta abar ere izendatuko dira. □

## Kaxkoko jaia asteazkenean

■ Plaza Berrian egingo den bazkarirako txartelak salgai daude, 'Haizea', 'Jaione Konjelatuak' eta 'Peñan', 12 eurotan.

ASTE honetan izango da Kaxkoko jaia, auzo elkarteak antolatuta. Orain arte Kardaberaz kalean bakarrik egiten bazen ere aurten Kaxko osoan egingo da festa. Urtero bezala, aurten ere bazkaria egingo da eta txartelak salgai daude honako hiru puntuetan: *Haizea*,

*Jaione Konjelatuak* eta *Peña* okindegia. Agustin Peña izango da aurten Alkate makila jasoko duena, Adeli Erdoziaren eskutik. Ekitalia Peña okindegi parean egingo da. Karmen egunean, egun osoko festa izango da eta bi kaleetan eta Plaza Berrian egingo dira ekitaldiak. □

### IKASTAROA LANGABETUENTZAT LAN ARRISKUEN PREBENTZIOA

("Técnico Medio" titulua)  
-INEMek subentzionatua-

300 ordu

Hasiera: Irailaren 9an  
Bukaera: Abenduaren 4ean  
Ordutegia: 14:00 -19:30  
asteleheneetik ostiraletara



**UROLALDE AKADEMIA**

Oindi kalea 1 - HERNANI - 943 33 37 11 - 943 33 42 27



OKINDEGIA • JANARIDENDA

Zure eguneroko  
beharrei erantzuteko,  
hemen gaude.

Kale Nagusia 19  
Tel.: 943 55 23 98  
HERNANI

### GARAYAR AUTOBUSAK


Autobus serbitzua  
Linea erregularrak



Zerbitzu diskrezionalak  
(ESKOLARRAK)

Hernani-Aiete-Donostia-Aiete-Hernani  
Andoain-Urnieta-Hernani-Donostia-Hernani-Urnieta-Andoain

Jauregi bailara 17 - Tel.: 943 556 658 / 943 556 662  
Faxa: 943 331 208 e-maila: mgarayar@facilnet.es  
20120 Hernani (Gipuzkoa)



Aimar Irigoien 17 urteko errezildarra 200 kiloko harra jasotzen, look berriarekin.

## Azkeneko egunean ere jende asko eta giro ederra Martindegiko jaietan

IKUSKIZUN politikak izan ziren atzo Martindegiko Sanfermin jaiak agurtzeko. Eta aurreko egunetan bezalaxe, jende asko bildu zen Hernani eta Astigarraga arteko auzoan.

Bazkal aurrean, herri kirolak eta bertsolariak izan ziren. Herri kiroltan Baleri Aranburu eta Pedro Etxeberria aizkolariak txanda librean aritu ziren Peñagarikanoren kontra, 10 enborretara. Hasieran Peñagarikano aurretik errez ote zijoan ematen zuen, baina, azke-

nean minutu erdi inguruko aldea atera zioten Aranburu *erdi-hernaniarrak* (Martindegin hala bataiatu zuten) eta Etxeberria hondarribitarrak.

Aimar Irigoien gazteak ere exhibizio polita egin zuen, 200, 140 eta 100 kiloko harriekin.

Lizaso eta Arzallus bertsolariak eguerdian eta arratsaldean kantatu zuten Gorka Tolosaren agindura.


Arratsaldean, Trikitilari Gazte txapelketa jokatu zen eta Jagoba-Amets bikoteak irabazi

zuen. Tokan, Iñaki Artola izan zen onena, 18tik 11 jota, Pedro Oiarbidek baino 3 gehiago. Auzoko onena, Aurelio Santos, 6 jota. Txingetan, 2 metrogatik irabazi zuen Igor Olabidek 6 plaza eginda, Ander eta Aitor Barrenetxearen aurretik.

Larunbatean abere proba izan zen eta Guardiren zaldiak irabazi zuen 72 plaza eginda, *Paollarenak* baino bi gehiago. Musean, Asentxio eta Estitxu Barrenetxea aita-alabak irabazi zuten jaietako txapelketa. □



Aranburu aizkolaria azken kolpeak ematen.



Lizasok erakutsi zion Arzallusi Martindegirako bidea.

## Aitor Barrenetxea eta Iñaki Mendizabal onenak platano dantzan

MARTINDEGIKO jaietako proba berezietako bat platano dantza izaten da, igande goizaldean egiten dena. Jokoa da binaka platanoa ahoan hartu eta dantzan zeinek gehiago iraun platanoa hautsi gabe. Tartean proba zailak ere izaten dira: soka azpitik pasa eta horrelakoa. Aurtan, Aitor Barrenetxea eta Iñaki Mendizabal izan dira *platano dantzari* onenak, eta Perla Talasoterapia lasaitu eder bat izango dute sari. □



Behemendiko azoka larunbat eguerdian Plaza Berrian.

## Behemendiko azoka irailean berriz

LARUNBATEAN Behemendi elkarteen azoka izan zen Plaza Berrian eta hernaniarrak baserriarren produktuak erosteko aukera izan zuten. Barazki, pastel, gazta, enbutido eta beste era askotako jeneroa zegoen aukeran, eta

eguraldi ederra egiten bazuen ere, izan dira jende gehiagoko azokak.

Behemendiko azoka hilean behin izaten da Hernanin, baina, abuztuan ez da izango eta iraileko bigarren larunbatean etorriko da berriz. □

## JUBILATU ETXEA

### Donibane Garazirako sortea

JUBILATU Etxeak eskurtsia antolatu du Behe Nafarroako hiriburua, Donibane Garazira, uztailaren 23rako. Goiza Garazin pasa eta bazkaria Orre-

gan izango da. Eskurtsio horretarako zozketa asteazkenean egingo da, uztailaren 16an: arratsaleko 17:00etan, Jubilatutxean bertan. □

## BAI EUSKARARI AKORDIOA HERNANIN

### Jaurlaritzaren laguntzak azaltzeko ekitaldia, bihar Ibaiondon

EUSKO Jaurlaritzak enpresa eta lan munduan euskera bultzatzeko zein laguntza dituen azalduko du asteartean Ibaiondo poligonoko ofizinetan. Bai Euskarari ekimenaren bidez, Nikolas Gardner euskera

planetako burua bi puntu azalduko ditu: laguntzak zein diren eta horiek lortzeko bideak, eta laguntza horiek biltzen dituen programa informatikoa. Ekitaldia arratsaldeko 19:00etan da. □

## AEK-k epea zabalik du oraindik uztailleko saio berezietarako

AEK euskaltegiak uztailerako antolatu dituen saio berezietan izena eman nahi duena garaziz dabil oraindik. *Abestu eta jolastu* izeneko saio berezia astelehenero izango da uztaillean, goizez eta arratsaldez.

*Ahozko ipuingintza* uztailaren 21, 22, 23 eta 24an da. Azkenik, *Musika beltza eta elektronikoa* saioa ere 21etik 24ra izango da, 19:30etatik 21:30etara. Informazio gehiagorako: 943-557801. □

## ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK	✚ FARMAZIAK	
	ASTELEHENA	ASTEARTEA
▶Taxiak: 943 550093 ▶Udaltzaingoa: 943 333288 ▶DYA: 943 464622 ▶Anbulatorioa: 943 006666 ▶Jokalaria anonimoak 943 331103	▶Egunez: Bulnes Florida auzoa ☎ 943 557738 ▶Gauzez: Ansa Andoain. Ondarreta ☎ 943 591302	▶Egunez: Chucla Kardaberaz 48 ☎ 943 551793 ▶Gauzez: Arzallus Andoain. Plazao 17, 25 ☎ 943 591514

## IRAGARKI MERKEAK

Hernaniko taberna batek pertsona bat behar du lanerako. Kondizio onak. Interesatuak deitu: **660 982 145** edo **678 058 003**.

Pisua salgai zentroan. 3 gela dauzka eta berritua dago. Deitu: **943 330 927**